

# PROBA ESPEZIFIKOA

2011ko PROBA

**GEOGRAFIA**

PROBA

ERANTZUNAK





### **Azalpenak**

Probaren iraupena: ordubete.

1. Jar itzazu mapan autonomia-erkidegoen izenak. Zure ustez, erkidegoren bat falta da? Hala bada, aipa itzazu falta direnak. (3 puntu).



- 2.- Hauta ezazu bi galdera hauetako bat eta erantzun iezaiozu. (3 puntu).

A. Espainiako ekonomian hirugarren sektorea nagusitzea.

- Deskriba ezazu azken hamarkadetan Espainiako ekonomian gertatu den hirugarren sektorearen nagusitze-prozesua.

- Azaldu ezazu zer faktorek baldintzatu duten.

B. Azter itzazu Euskadiko ibai-isurialdeen ezaugarriak, eta erlazioa itzazu erliebearekin, klimarekin, zoruekin eta euri-erregimenarekin.



3.- Defini itzazu kontzeptu hauek: (hauta itzazu 3)

(1 puntu).

- Isoterma
- Kala (itsas arrantzan)
- Fosa tektonikoa
- Zabalgunea
- Basoberritzea
- Biztanleria aktiboa

4.- Egin ezazu plano hauen iruzkina.


(3 puntu).



1. plano



2. plano



3. plano



**EBAZPENA: GEOGRAFIA**  
**(2011ko maiatza)**

Probaren iraupena: ordubete.

1. Jar itzazu mapan autonomia-erkidegoen izenak. Zure ustez, erkidegoren bat falta da? Hala bada, aipa itzazu falta direnak. (3 puntu).



Erantzuna:





2.- Hauta ezazu bi galdera hauetako bat eta erantzun iezaiozu. (3 puntu).

**A. Espainiako ekonomian hirugarren sektorea nagusitzea.**

- Deskriba ezazu azken hamarkadetan Espainiako ekonomian gertatu den hirugarren sektorearen nagusitze-prozesua.
- Azaldu ezazu zer faktorek baldintzatu duten.

**B. Azter itzazu Euskadiko ibai-isurialdeen ezaugarriak, eta erlazioa itzazu erliebearekin, klimarekin, zoruekin eta euri-erregimenarekin.**

**Erantzuna:**

**A.- Espainiako ekonomian hirugarren sektorea nagusitzea.**

- **Deskriba ezazu azken hamarkadetan Espainiako ekonomian gertatu den hirugarren sektorearen nagusitze-prozesua.**
- **Azaldu ezazu zer faktorek baldintzatu duten.**

Ekonomian hirugarren sektorea nagusitzeko prozesua 1959an hasi zen Espainian, eta, haren bidez, hirugarren sektorea gailendu da produkzioaren eta enpleguaren konposizioan eta egituran. Hirugarren sektorearen hedapena urbanizazio-prozesuarekin batera gertatu da, eta lotuta dago biztanleriaren ongizate-mailaren goratzearekin eta egitura ekonomikoen konplexutasunarekin. Prozesu horretan, agerian geratzen da Espainiako ekonomiak nekazaritzarekin lotura izateari utzi diola ekonomia industrialara bihurtzeko lehenik, eta funtsean zerbitzu-ekonomia bihurtzeko gero; fenomeno hori, gainera, hirietan islatu da batez ere.

Hirugarren sektorearen hazkundearen joera BPGren (Barne Produktu Gordinaren) osaeran nahiz biztanleria aktiboaren osaeran ikus daiteke.

Hirugarren sektorea nagusitzeko prozesua hiru etapatan gertatu da. Lehenbizikoan (1959-1975), hazkunde ekonomikoa gertatu zen, batez ere bigarren sektorean, eta, gero, hirugarrenean; etapa hartan, lehen sektorearen atzeraldia hasi zen. Bigarren fasean (1975-1985), petrolioaren prezioen gorakadaren eraginez, krisi ekonomikoa izan zen Espainian (1973); ondorioz, bigarren sektorea jaitsi egin zen, lehen sektorearen krisiak bere horretan jarraitu zuen, eta asko hedatu zen zerbitzu-sektorea edo hirugarren sektorea. Osasungintza, hezkuntza, enpresentzako zerbitzuak eta administrazio publikoa hedatu ziren gehien. Azken fasea (1985etik aurrerakoa) ekonomiaren hazkundearena izan zen berriro, eta sektore ekonomikoek ordura arteko joera berari eutsi zioten, hots, hirugarren sektorea handituz joan zen eta bigarrena eta lehena txikituz.



Arrazoi hauek baldintzatu dute zerbitzu-sektorea etengabe handitzeko prozesu hori:

- Industrializazio gero eta handiagoa, zerbitzuen eskaria handitzea eragin baitzuen garraio-zerbitzuetan, banku-jardueretan eta jarduera finantzarioetan, besteak beste. Garraio industrialaren beste ondorioetako bat hirien hazkundera izan zen, eta horrek eragin zuen zenbait zerbitzuren eskaintza handitzea; adibidez, osasungintzakoak, hezkuntzakoak, merkataritzakoak eta abar.
- Turismoaren hazkundera, zeinak, bereziki 80ko hamarkadatik aurrera, zenbait zerbitzuren garapena bultzatu baitzuen: hotelak, jatetxeak, aisiarekin lotutako zerbitzuak, garraioak, bankuak eta abar. Turismoa, gaur egun ere, hirugarren sektoreko oinarri garrantzitsuenetako bat izateaz gainera, Espainiako ekonomiaren oinarri garrantzitsuenetako bat ere bada.
- Industriaren eta turismoaren garapenarekin batera, Espainiako gizartearen bizi-maila handitu zen. Eta horrek kontsumo-ohiturak aldatzea eragin zuen, eta aisiarekin, kirolarekin, ostalaritzarekin, kulturarekin, etxe-zerbitzuekin, haurtzaindegiekin, bankuekin eta abarrekin lotutako zenbait zerbitzuren eskaria handitzea.
- 80ko hamarkadan, halaber, gastu publikoa handitu egin zen hezkuntza, ikerketa, komunikazioak, osasungintza eta beste zenbait zerbitzu emateko. Aldi berean, autonomien estatua ezarri zenean, administrazioak bikoiztu egin ziren (zentrala eta autonomikoa), eta, horren ondorioz, asko handitu zen funtzionarioen kopurua. Zerga-sistema modernizatzean zerga berriak ezarri zirenean, funtzionario, gestoria, finantza- eta ekonomia-aholkularitza eta abar gehiago behar izan ziren.
- Emakumezkoak lan-merkatuan sartzeak eta lan-merkatuko aldaketek haurtzaindegietako edo etxe-zerbitzuetako eskaintza handitzea eragin zuten, besteak beste.
- Azkenik, enpresek kostuak kanporatzeko joera izan dute, eta, hala, garai batean enpresetan bertan egiten ziren zerbitzuak areagotu egin dira; esaterako, gestoriak, aholkularitza-zerbitzuak eta abar ugaritu egin dira.

Horren guztiaren ondorioz, ikaragarri handitu da hirugarren sektorea, bigarren sektorearen kalterako; horrenbestez, desoreka gertatu da autonomia-erkidegoen hazkunde ekonomikoan, erkidego batzuetan hirugarren sektorean jarduten baitu biztanleria aktibo okupatuaren % 70ek baino gehiagok eta, beste batzuetan, ez baita % 50era ere iristen. Zerbitzu-sektorea bereziki erkidego hauetan biltzen da: Madril, Balearrak eta Kanariak (turismoa), eta, haien atzetik, Katalunia, Euskadi, Murtzia eta Andaluzia.



**B.- Azter itzazu Euskadiko ibai-isurialdeen ezaugarriak, eta erlazioa itzazu erliebearekin, klimarekin, zoruekin eta euri-erregimenarekin.**

Ibaien erregimenean eragiten duten faktore garrantzitsuenak orografia eta faktore atmosferikoak dira. Ibai-erregimenaren azterketan, ibai batean doan ur kantitatearekin lotutako elementuak erabiltzen dira, besteak beste, emaria, urtaroaren araberako aldaketak, ur-goraldiak, jariatzea eta arrasteak.

Euskadiko ibai-isurialdeko —isurialde atlantikoko— ibaien ibilguak Espainiako erregularrenak dira zonako plubiositate konstanteari esker; nabarmenenak Bidasoa eta Nerbioi-Ibaizabal dira. EAEko ibaiek ez dute agorraldirik izaten, ez baitute plubiositate faltarik, euri gehiago egiten baitu eta urte osoan banatua, gainera. Ur-goraldiak gutxitan gertatzen dira; haiek eragiten dituzten fenomeno meteorologikoak ez dira ohikoak urte osoan klima euritsua duten tokietan, eta halakoa da EAEkoa.

Nolanahi ere, ibai horiek jariatze handienekoak dira, eta, horregatik, ur-goraldi gutxi-asko handiak eragin ditzaketen faktoreak dauzkate. Arrazoi horietako bat topografia da, kilometro gutxitan garaiera-alde handiak gertatzen baitira, eta horrek ura azkarrago hedatzea eragiten baitu. Beste arrazoietako bat da ibaien behe-ibilguak, ohandeen inguruak, gizakien egonleku bihurtu izana; eraikuntzaren ondorioz, ibilgu naturalak txikituz joan dira, eta, ur-goraldiak gertatzen direnean, uholdeak eta bestelako hondamendiak gerta daitezke. Ur-goraldi horiek neguan gertatu ohi dira, euri gehien egiten duenean.

Ibaiek —oso emaritsuak— higadura-indar handia izaten dute, eta arroila sakon eta estuak sortzen dira, mendikateen erliebeak ebakitzen dituztenak.

Ibai horien erregimena plubial eta plubionibal ozeanikoa da. Mendiak kostatik hurbil daudenez, ibaiek laburrak dira, eta elur-faktoreak eragiten die, ibilguen hasierako zatietan baino ez bada ere. Ibaian behera, klima hezeak eta prezipitazio ugariak zona euritsuei dagokien euri-erregimena eragiten dute.

Azken finean, esan dezakegu ibai laburrak direla, eta ibai luzeek 60 km eskas izaten dituztela, Nerbioi ibaia salbu (71 km). Bidasoa eta Oria emari eta erregularutasun handikoak dira, klimaren ondorioz; dena den, zenbait ibaitan, bat-bateko goraldi nabariak dituztenetan, ibilgua bideratzeko lanak egin behar izaten dira (Oiartzun eta Urumea).

Ibilgu horien aprobeitxamenduari dagokionez, zentral elektrikoena da aipatzekoa; ur-jauzien erregularutasuna eta ugaritasuna dela eta, ingurune oso industrializatu bati energia elektrikoa emateko urtegiak eraiki daitezke. Ur-ibilgu horien ezaugarriak gora-behera, zenbait ibairen behe-ibilguak garraibide gisa erabil daitezke; adibidez, Oria ibaian Aginagatik bokaleraino nabiga daiteke, eta Ibaizabal ibaian, bokalean.

**3.- Defini itzazu kontzeptu hauek: (hautatu 3)**

(1 puntu).

- **Isoterma**
- **Kala (itsas arrantzan)**
- **Fosa tektonikoa**
- **Zabalgunea**



- **Basoberritza**
- **Biztanleria aktiboa**

**Erantzuna:**

- **Isoterma:** Tenperatura bereko puntuak elkartzen dituen lerroa. Tenperatura-mapetan erabiltzen da klima-eskualdeak bereizteko.

- **Kala (itsas arrantzan):** Arrain asko egoteagatik —normalean, oso espezie jakinekoak— arrantzarako oso egokia den itsas eremua, itsasontziek arrantzarako erabiltzen dutena. Arrantzaren ugaritasuna erabakitzen duten faktoreen artean, aipatzekoak dira planktonaren ugaritasuna, plataforma kontinentalen zabalera, ur hotzak hurbil izatea eta ur hotzen eta epelen arteko kontaktua. Gaur egun, Espainiako kalek arazoak dituzte baliabide hidrikoen egoera txarraren, gehiegizko ustiapenaren eta plataforma kontinentalaren azalera txikiaren ondorioz.

- **Fosa tektonikoa:** Mendigune zaharrak, oso material trinkoz eginak, ez dira tolesten; hautsi egiten dira, eta bloke altxatuak (horstak) eta beste bloke hondoratu batzuk —fosa tektonikoak— sortzen dituzte. Egitura hau ohikoa da mendigune zaharretan, Iberiar goi-lautadan, adibidez; mendigune horretan, Erdialdeko Sistema horstez (Gredos, Guadarrama...) eta fosa tektonikoz —zeinak mendiguneko pasabide naturalak osatzen baitituzte— osatua dago.

- **Zabalgunea:** XIX. mendean, hiri askotan, industrializazioak erakarritako populazioari lehengo tamainarekin eutsi ezin izan ziotenean eraikitako auzo berria. Hiriaren hazkunde desordenatuari ematen zaion erantzun planifikatua da. Zabalguneak, batez ere, burgesiaren bizitoki gisa sortu ziren; lauki-sarean egindako planoekin eta kalitate handiekin eraiki ziren, eta hirigune historikotik ingurabideen (garai batean harresia zegoen tokian dauden kale zabalen) bidez bereizten ziren. Adibidez, Bartzelonako zabalgunea eta Madrilgo Salamanca auzoa. Beste kasu batzuetan, zabalgunea erradiala da; adibidez, Palma Mallorcakoa.

- **Basoberritza:** XIX. mendearen amaieran, zoruen higaduragatik, suteengatik, uholdeengatik eta abarregatik hondatutako landare-estalkia biziberritzeko Espainian bultzatutako basoen berritza. 1940 eta 1980 bitartean, hazkunde azkarreko espezieekin (pinuak eta eukaliptoak, batez ere) basoak berritza erabaki zen, helburu produktibo batekin; birpopulatzeko horrek, ordea, kalte egin zien zoruei askotan, espezieok ez baitziren egokiak eremuko ingurumen-kondizioetarako. Gaur egun, autonomia-erkidegoek espezie autoktonoak erabiliz birpopulatzeko planak lantzen dituzte.

- **Biztanleria aktiboa:** Lanean ari diren edo lanerako prest dauden 16 urtetik gorako biztanleen taldea. Talde horretatik kanpo geratzen dira ikasleak, etxeoandreak eta lan ordaindurik egiten ez duten beste giza taldeak. Biztanleria okupatuaz gainera, langabeak ere sartzen dira talde honetan (une





jakin batean lan ordaindurik egiten ez duten baina lan bila dabiltzan pertsonak). Espainiako biztanleria aktiboaren ezaugarri nagusiak hauek dira: gazteak lan-merkatuan berandu sartzea, erretiro-adina aurreratzea eta emakumezkoak pixkanaka lan-munduan sartzea.

#### 4.- Egin ezazu plano hauen iruzkina.


(3 puntu).



1.planoa



2.planoa



3.planoa

**1. plano:** Plano ortogonal. Perpendikularki elkar gurutzatzen duten kale zuzenak ditu ezaugarri. Normalean, aurrez egindako hiri-plangintza bati dagokio, eta jatorri erromatarreko hiriak izaten dira, "bastidak" (babestutako hiriak) eta Erdi Aroko zenbait hiri. Adibidez, Bilboko Zazpikaleak eta Castelló de la Planako zenbait hiri, hala nola Villarreal, Nules eta Almenara. Laukian marraztutako diseinu hori aglomerazio berrietan ere badago (biztanleria areagotzearen eraginez sortutakoetan); hiri askotan egin ziren, XIX. mendearen bigarren erdian eta XX. mendearen lehen laurdenean: zabalgunek izenekoak dira.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

**GEOGRAFIA**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS*

*MAYO 2011*

***GEOGRAFÍA***

**2. plano:** Plano erradiozentrikoa. Plano horretan, erradioen norabidea dute kaleek eta etorbideek, eta beste kale zentrokide batzuen bidez lotuta daude. Oro har, erdiko plaza batera edo hiriko erdigunera jotzen dute. Erdi Aroko zenbait hirigunetan ikusten da horrelako plano (esate baterako, Gasteizkoan), eta zenbait zabalgunetan, Bilbokoan kasu.

**3. plano:** Plano lineala. Era horretako planoetan, komunikatzeko bide bati (ibai edo errepide bati) jarraituz egituratzen da hiria. Badira Erdi Aroko adibide batzuk —Santiago bidearen babesean sortutako zenbait hiri, hala nola Nafarroako Auritz—, baina ohikoagoa da XIX. mendearen amaieran planifikatutako hirietan. Esate baterako, Madrilgo hiri lineala, Arturo Soriak 1882an diseinatu.



**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:**

- Zehaztasunez, koherentziaz eta era ordenatu batean erantzuten die galderei.
- Ongi argudiatuta ematen du iritzia.
- Badaki grafikoak interpretatzen eta iruzkintzen.
- Mapa batean jarri ditu autonomia-erkidegoak.

**GALDEREN KALIFIKAZIOA:**

- 1., 2. eta 4. galderak: 3 puntu  
3. galdera: 1 puntu

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO  
ERLAZIOA**

<b>GALDERA</b>	<b>EZAGUTZA-ADIERAZLEAK</b>
1	G.2., 1.1., 5.3.
2	4.1., 4.3 / 3.1.
3	3.1., 4.1., 5.1.
4	G.2., 1.2., 1.4., 5.2.